

EZ GAUDE KONFORME

LOURDES eta HAMAIKA LORE

Artistak:

Olatz Salvador (musikaria)

Alaia Martin (aurkezlea-bertsolaria)

Antton Valverde (musikaria)

Josune Arakistain (musikaria)

Noemi Viana, (gorrizko emakumea- dantzaria-)

Myriam Perez Cazabon, Oihana Vesga (dantzariak)

Idoia Hernandez (musikaria)

Bihotx txalapartariak (3)

Oinkari dantza taldea (6 dantzari)

Paule Bilbao (musikaria)

Easo abesbatza (30 neska gazte)

“Bihotzaren sistolea eta diastolea edo haizea lore gorrien azalean, kolpeka”

GIDOI NARRATIBOA

- 1- **Bideoa 1.** LOURDES IRIONDOREN aurkezpena: Mari Jesus Iriondo, Bernardo Atxaga, Jose Mari Berasategi, Antton Valverde (artxiboko irudiak eta grabatutako irudiak) **(2:30)**
- 2- **ANTXON VALBERDE** pianoan eta kantuan, **OLATZ SALVADORE**kin. *“Izotz ondoko eguzki” eta “Errota Zaharra”.* **(8:00)**

Kantuaren azken notei, bi esku gehituko zaizkio pianoari: **Idoia Hernandez-**enak dira

- 3- Petaloen zaparrada eszenan. Azpian **gorrizko emakumea**. Pianoan **Idoia Hernandez**

ALAIA:

**Emakume bat bizitzaren bidaian
Errota zahar baten biribiltasun txikia-
Indar bat, petaloz petalo eraikia
Emakume bat edo bat bezain denak
Emakume denak, bakoitza bere garaian
Indar bat, bere baitan eztanda egin nahian
Emakume nekaezin bat labirintuan
Emakume bat, taupaden labirintuan. (1:34)**

- 4- **Olatz Salvadorrek eta Josune Arakistain** "Hitzak dira" kantuaren bertasio eguneratu bat egingo dute akustikoan. *Pantailan* Ez dok Amairuren eta garaiko irudiak. Olatzek, alde egitean gitarra emango dio Alaia Martin-i. (2:45)

- 5- **ALAIA:** (*Gitarra eskuetan*)

Hasieratik iragarri zitzaion etorkizun oparoa Lurdesi. Kanturako dohai nabarmenak izateak Maria Callasen gisa kantu lirikoan aritzeko ametsa hauspotu zion eta misiolari joatearekin ere egiten zuen amets. Osasuna ez zen, ordea bere ezaugarririk indartsuena izan eta ametsak berraukeratu behar izan zituen, bihotzeko gaitza antzeman ziotenean. Atsekabe hura goxatzeko aitak honelakoxe gitarra bat oparitu zion eta gitarra harekin hasi zuen bere bidea.

(ALAIAk gitarra plataforma borobilean utzi eta BERTSOA kantatuko du)

**Beti izan zara, eredu, Lurdes;
gaur egunean eta lehen
zure barruan zenbat proiektu,
zenbat maitasun ta ahalmen...
Aintzindaria izan baitzinen
eta zure gitarraren
oihartzunetik ikasi dugu
zein inkonformistak garen...
Zure ahotsa entzunez gero
ikusten da garden-garden**

**Ahultasunak ze indar duen
ta indarra ze hauskorra den.**

(PUBLIKOARI berriz)

ALAIA: Lurdesi berehala loratu zitzaion, hasitako bide hura; berehala ezagutu zuen loraldia, arrakasta eta ospea. Gitarra lagun hasi zen kantuan, gizonak jaun eta jabe ziren kultur eszenatoki publikoa irabaziz eta Euskal kulturarekiko zeukan konpromezu politikoagatik protesta-abestiak kantatuz. Parisen gazteak askatasun bila kalera ateratzen ziren urte berean, Euskal Herrian Lourdesen Ez gaude konforme kantua, ereserki bihurtu zen. Gitarra lorontzi bihurtu eta kaleak udaberritu egin ziren.

- 6- Dantza garaikidea. Dantza alai. **Mirian Perez Cazabon** eta **Oihana Vesga**. Pianoarekin **Idoia Hernandez**. (4:50)
- 7- **Bideoa 2 (ZUZENEKOAN EZ):** Lourdes eta haren garaia ezagutu zutunehen iritiza; Mariasun Landa, Toti Martinez, Aizpea Goneaga, Idurre Eskisabel, Josune Ariztondo (4:00)
- 8- Txalaparta (**Bihotx txalapartariak**) doinuek gora egingo dute. **Gorritzko emakumea eszenan agertuko da**. (2:00)

ALAIA:

Taupaden indarrak loreen petaloak mugiaraz ditzake.

Airean olatuak sortzen dituzte taupadek.

Guztiok dauzkagu hiru taupada. Taupada. Taupada.

Lurdesez zeuzkan erara.

Taupada bakoitza garrasi bat da.

Herriarena, konforme ez egoteko patxada. Taupada. Aupada.

Emakumetasunarena, ertzeko koordenada. Taupada. Gautada.

Gaitzarena, beldurraren besarkada. Taupada. Nautada.

Lurdes taupada ezberdinetatik begira eta senti genezake. Beti bizi, beti indartsu, beti geratzeko zorian.

beti geratzen da petaloren bat, erori gabe

(DANTZAK ETA TXALAPARTAK gora egingo dute).

- 9- **OINKARI** (sei neska): **LOREEN EZPATA DANTZA**, pianoz eta txalapartz lagunduta. (4:21)

10-**Bideoa (ZUZENEKOAN EZ)**. Garai berriak. Nola bizi duten eszenaratzea egungo emakume sortzaileek: Maider Zabalegi, Estitxu Pinatxo, Sara Zozaya, María Rivero, Libe Hernando, Marem . **(4:00)**

11-**PAULE BILBAOK (ARIMA taldekoa)** gitarra elektrikoaz "*Baga biga higa*", Ez dok Amairuren abesti esanguratsua abesten du. **(3:00)**

ALAIAn, ren testuaren lehen parte, PAULEk gitarraz lagunduko du).

ALAIAn:

Belaunaldiz belaunaldi udaberritzen da kultura. Gitarra akustikoak elektriko bihurtzen diren naturaltasun berarekin igarotzen da belaunaldiz belaunaldi abesti eder baten elektrizitatea. Belaunaldiz belaunaldiko zubiak eraiki ditu Lurdesen ahotsak eta asko izan ziren, itzalean eta isilpean, euskal kultura irauli zuten emakumeak, izendunak batzuk, izen gabeak beste hainbat... Hamaika dira, euskal kantagintzaren loraldian parte hartu zuten ahotsak, petalo gardenez askok, ikusezin, emakumeon ohiko bide arantzatsuetan aurrera egin zutenak, mespretxuzko begiradei aurre eginez, euren lekua ez zela sentiarazten zietenari arrazoia ukatuz... Emakume asko egon ziren bigarren lerroan, teloiaren atzean edo titularren ertzean eta zalantzarik gabe, haiei ere zor diegu oholtza oraingook. Haien ahots korden kordak gaur eguneraino iritsi dira eta korda horiek eutsita gaude hemen.

(PAULEK gitarra emango dio ALAIAn eta honek plataforma borobilean utziko du, akustikoaren ondoan).

ALAIAn:

Ahotsen oihartzun bakarrik ez, adinen arteko zubigile ere izan zen Lurdes. Umezalea zen oso eta garrantzia handia ematen zion transmisioari eta ondorengoek erreferenteak izateari. Ekarpen handiak eta ederrak egin zituen artista gisa, baina baita hurrekin Urnietan lanean ibili zenean ere. Txangoak antolatzen zituen, ipuinak eta abestiak idazten zituen eta biziki maite zuen umeen konpainia. Familiarengandik zetorkion joera hori.

Bihotz ahula omen zeukan, baina hori ikuspegi medikotik begiratuta soilik sinets genezake. (2:00)

12- UMEEN ABESBATZA (neskatoak bakarrik) (Easo abesbatza) “Tiriki-tauki” eta “seaska kanta”. (7:00)

(ALAIK eserita entzungo ditu kantuak. Bigarrean errezitatu egingo du).

ALAIK: “zaude isilik haurra, ez egin negarrik munduak ez du eta malkoen beharrik, handitzen zarenean ikusiko duzu isilik egoteak zenbat balio dun, jarrai zure bidetik hobe da horrela, gauza denen gainetik, haizea bezela...”

13- ALAIA:

Lurdesen azken kantaldiak gogoangarriak izan ziren, Loiolako herri irratia alde egindakoa, Galarretako pilotalekuan osatu zutena edo Trinitate plazakoa, esaterako... eta haien ondoren bizimodu lasaiago baten alde egin zuen, bere osasunaren eta gogoaren mesedetan.

Geroztik Lurdesek historiari irabazi dio.

Historiaren orrialdeetan izkiriatu du bere izena.

Denek ez zuten zorte bera izan.

Historiaren errota zaharrean biraka dabil bere izena. Bere izenak.

Ez dok 13ko musa izendatzen zuten, Euskal Herriko Joan Baez bezala goraiatzeko, baina bere ezizenik kuttunena etxekoek eta Xabier Letek, bere bidelagunak ipinia zuten: Lulu.

Historiari irabazi dio Lurdesek. Apurka desagertzen, ilbeheran geratzen diren izen horien aurrean, ilbete baten indarrez egin du oihartzun, gaur eguneraino. (1:10)

14- Josune Arakistain “Ilargiaren alaba” kantuarrekin.

(Gorritzko emakumea eszenan sartu da. Soineko gorria erantsi eta beste bi dantzariekin batera dantzan hasiko da. Arin). (4:00)

15- OLATZ SALVADOREK eta PAULE BILBAOK (ARIMA) eskenatokiko plataforman dauden bi gitarrak hartu eta “EZ GAUDE KONFORME” kantatzen hasiko dira, guztiak kantatzera gonbidatuz, PUBLIKO eta PARTAIDEAK. (3:00)

16- ALAIA: AGUR BERTSOA (1:00)

**Euskalduna izatea
zaila zen garai baten
jakin zenuen biderik
estuenetik joaten,
gitarraz oholtzara irten
ta plazandre izaten,
zure_indarra, sormena ta
eredua ematen...
Mila esker, izan arren
hainbeste baldintzapen,
guri irakastearren
“hala ere” esaten.**

17- Bukatutakoan gitarrak plataforman utzi eta hau jiraka hasiko da, Lourdes-
en “**Hala ere**” kantuari tarte utzita. Bitartean partaide guztiak loreak
eskuetan hauek eszenatik sakabanatuko dituzte. **(3:00)**

ALAIA: Agur guztioi, etxeko eta hemen zaudeteno. Agur eta ohore Lurdes.

18- **IDOIA HERNANDO** azken kantua jotzen. (KOLOREZKO PETALOEN
ZAPARRADA) **(2:45)**